


Euskal AEko BPGk urte arteko %2,2ko hazkundera izan zuen 2015eko lehen hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, %0,6ko hazkundera

2015eko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko BPG %2,2 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera; datua aurreko hiruhilekoa baino hiru hamarren hobia da. Aurreko hiruhilekoaren aldean, %0,6 aldakuntza. Datu hauek apirilaren 29ko Hiruhileko Kontuen Aurrerapenarenak berresten dituzte.

Euskal ekonomiaren hazkundera, urte artean, Espainiakoa baino lau hamarren txikiagoa eta Eurozona-19koa (%+1,0) bi aldiz pasa.

BPGren urte arteko aldakuntza-tasa. (%)
Urtaroen eta jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eskaintzaren ikuspegitik, BPGren urte arteko hazkundera jarduera-sektore guztien bilakaera positiboari zor zaio.

Lehen sektorearen hazkunde-erritmoa azkartzen ari da (%13,9) aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero. Industria hazi egin da urte artean, baina erritmoa apaldurik. Eraikuntzan, 2007ko azken hiruhilekotik aurreneko aldiz, hazkundera. Zerbitzuetan dugu oro har, lehen sektorea salbuespen, urte arteko hazkunde-tasa handiagoa, aurreko hiruhilekoa baino gainetik ere. Bereziki nabarmena da esandakoa Gainerako Zerbitzuetan, non dauden besteren artean, jarduera profesionalak, finantzetakoak eta aseguruak.

Industria, lehen hiruhilekoan, %0,2 gehitu da urte artean, laugarrenean baino zortzi hamarren gutxiago; bosgarren hiruhilekoa jarraian urte arteko hazkunde-tasa positiboekin. Aurreneko hiruhileko honetan, %0,5eko jaitsiera dugu hiruhileko artean. Manufaktura-industria hamarren bat gehiago (%0,3) hazi da; hiruhileko artean %1,2.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2013	2014	2014				2015
			I	II	III	IV	I
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	-5,5	5,5	-1,9	6,2	13,8	4,6	13,9
INDUSTRIA ETA ENERGIA	-2,6	1,0	0,8	0,9	1,4	1,0	0,2
Manufaktura-industria	-1,5	1,1	0,9	1,0	1,4	1,1	0,3
ERAIKUNTZA	-4,7	-3,0	-4,1	-3,6	-2,5	-2,0	0,6
ZERBITZUAK	-0,9	1,5	0,6	1,1	1,7	2,6	2,8
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-1,6	1,6	0,3	1,3	1,9	3,0	3,0
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	0,1	2,2	1,7	2,0	2,4	2,8	2,7
Gainerako zerbitzuak	-0,9	1,1	0,3	0,6	1,3	2,2	2,6
Oinarrizko prezioei ERANTSITAKO BALIO GORDINA	-1,6	1,1	0,3	0,8	1,5	1,9	2,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	-2,7	1,7	1,9	2,2	0,8	1,9	2,6
BPG merkatuko prezioetan	-1,7	1,2	0,5	0,9	1,4	1,9	2,2

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eraikuntzan %0,6ko hazkundera, 28 hiruhilekoz jarraian urte arteko negatiboak izan ondoren. Tasa hau aurreko hiruhilekoa baino bi puntu eta sei hamarren handiagoa da. Halere, %2,9ko hiruhileko arteko jaitsiera.

Zerbitzuetan, urte arteko %2,8ko eta hiruhileko arteko %1,0ko hazkundeak.

Zerbitzuak %2,8 hazi dira urte artean; azpisektore guztiak positiboan baina indar ezberdinez: **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** hazi da gehien, %3,0. **Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** %2,7; **Gainerako zerbitzuak** (besteren artean, jarduera profesionalak, finantzak eta aseguruak) %2,6.

Administrazio Publiko, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak dira hiruhileko arteko gehien hazi direnak, %2,4, baina hazkundera dugu azpisektore guztietan. **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa** %0,6 hazi dira eta %0,5 **Gainerako zerbitzuak**.

Sektore-agregatuen joerak **Balio Erantsiaren** urte arteko bilakaera positiboa ekarri du, %2,1; 2014an zehar izandako positibotasunari eusten zaio. Datua bi hamarren hobe da aurreko hiruhileko urte artekoa baino. Hiruhilekoen artean eta seigarren hiruhilekoz jarraian hazkundera dugu, %0,6.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2014				2015
	I	II	III	IV	I
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	10,6	4,9	-1,0	-9,0	20,5
INDUSTRIA ETA ENERGIA	0,3	0,3	0,9	-0,5	-0,5
Manufaktura-industria	2,0	-0,9	0,9	-0,9	1,2
ERAIKUNTZA	-5,4	-2,4	1,1	5,0	-2,9
ZERBITZUAK	0,9	0,7	0,4	0,7	1,0
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,6	0,4	0,3	1,8	0,6
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	2,5	1,4	0,6	-1,5	2,4
Gainerako zerbitzuak	0,1	0,5	0,3	1,3	0,5
Oinarrizko prezioei ERANTSITAKO BALIO GORDINA	0,4	0,4	0,5	0,6	0,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	-0,4	0,8	0,5	1,1	0,3
BPG merkatuko prezioetan	0,3	0,4	0,5	0,7	0,6

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Urte artean %2,1eko hazkundera dugu **Barne Eskarian**; aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat hobeto. Positibotasun hau bi osagarrietan dugu, Azken Kontsumoko Gastuan eta Kapital Eraketa Gordinen. Bai esportazio, bai inportazio mailetan jaitsiera dugu, baina halere kanpo-saldoaren ekarpena BPGra positiboa izan da.

Familia-etxeetako Azken kontsumoaren Gastuak (Kontsumo pribatuak) azkartu egin du hazkunde-erritmoa, 2014an zehar bezalaxe. %2,9ko hazkundera dugu hiruhileko honetan; aurrekoan baino hiru hamarren gehiago. Hiruhileko arteko tasa, %0,4; 2014ko laugarren hiruhilekoan baino hiru hamarren txikiagoa.

Kontsumo publikoa (Herri Administrazioen Azken Kontsumoko Gastua) %0,2 hazi da urte artean (puntu bat eta sei hamarren gutxiago aurreko hiruhilekoan baino) eta %6,4 hiruhileko artean.

3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2013	2014	2014				2015
			I	II	III	IV	I
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	-1,1	1,4	0,3	1,2	1,7	2,4	2,3
Etxeguneen azken kontsumoko gastua eta EZMAEDE	-1,0	1,6	0,2	1,4	2,2	2,6	2,9
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	-1,4	0,9	1,0	0,8	-0,1	1,8	0,2
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-4,6	0,0	-0,9	0,0	0,2	0,6	1,3
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	-3,1	2,2	0,4	1,5	2,9	4,0	3,8
Gainerako kapital-eraketa gordina	-5,2	-1,0	-1,5	-0,6	-1,0	-0,7	0,3
BARNE-ESKARIA	-1,9	1,1	0,1	1,0	1,4	2,0	2,1
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	0,9	3,4	3,3	2,1	3,6	4,7	-1,4
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	0,4	3,2	2,6	2,1	3,4	4,7	-1,4
BPG merkatuko prezioetan	-1,7	1,2	0,5	0,9	1,4	1,9	2,2

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Azken Kontsumoko Gastua (Administrazio Publikoen Azken Kontsumoko Gastua eta Familia-etxeetakoa) %2,3 gehitu da. Aurreko hiruhilekoaren aldean, %1,6ko hazkundera.

Kapital Eraketa Gordina (Inbertsioa) %1,3 hazi da urte artean, aurreko hiruhilekoan baino zazpi hamarren gehiago. Halere %1,2ko hiruhileko arteko jaitsiera.

Berriz ere inbertsioaren jokaera indar ezberdindun bi bilakaeretan oinarritzen da. Ekipo-ondasunetan eginiko inbertsioa %3,8 hazi da urte artean eta %0,6 hiruhileko artean. Kapital Eraketa Gordinaren gainerakoak -eraikuntzarekin lotuagoak- tasa positiboa du urte artean (%0,3), eta %-1,9 hiruhileko artean.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2014				2015
	I	II	III	IV	I
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	1,8	-0,1	0,2	0,6	1,6
Etxeguneen azken kontsumoko gastua eta EZMAEDE	0,1	1,2	0,6	0,7	0,4
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	8,0	-4,8	-1,3	0,2	6,4
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-1,9	0,5	0,8	1,2	-1,2
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	0,9	2,1	2,4	-1,4	0,6
Gainerako kapital-eraketa gordina	-2,9	-0,1	0,1	2,3	-1,9
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	1,5	6,2	3,3	-5,9	-4,4
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	2,4	5,2	2,9	-5,6	-3,5
BPG merkatuko prezioetan	0,3	0,4	0,5	0,7	0,6

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Enplegua (**Dedikazio osoko baliokidetzan neurtuta**) %1,4 hazi da urte artean, laugarren hazkundera jarraian. 2014ko laugarren hiruhilekoaren aldean, urte arteko honek %0,3ko hazkundera dakar.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, enplegua jaitsi egin da Industrian eta Eraikuntzan eta gehitu Lehen sektorean eta zerbitzuetan. Zerbitzuetan %2,4 hazi da enplegua urte artean. Lehen sektorean %1,3 hazi da. Urte arteko jaitsierarik handiena Industrian, %-1,5. Eraikuntzan, %0,1eko enplegu-galera.

Hiruhileko artean: Lehen sektorean %-1,5, Industrian %-0,3, Eraikuntzan %-3,1. Zerbitzuek, %+0,8.

Urte artean, BPG %2,4 hazi da Gipuzkoan; %2,2 Bizkaian; %1,7 Araban. Hiruhileko artean, Arabak %0,6, Bizkaia %0,6, Gipuzkoak %0,5.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Hiruhileroko kontuen gaineko prentsa-ohar gehiago (HKE)

Euskal AEko hiruhileroko kontuen gaineko datu-bankua (HKE)